



EDURNE KOCH

erretzen da energia gehien. Horrela, piztu eta itzali ibili den berogailu batek egun osoan piztuta izan denak baino %20 energia gehiago xahutzen du. Egokiena, beraz, berogailua ahalik eta denbora gehienez egonkor mantentzea da.

Ondo
bakartutako
etxean energia
gutxiago erabiltzen
da, zenbaitetan
%50 gutxiago

Autoan zenbat eta astiroago, seguruago eta merkeago

Eusko Jaurlaritzak, EEE Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Erakundearen bitartez, familia batek urtean energian zenbat diru gastatzen duen aztertu du. Ikerketa horren emaitzek jakinarazi dutenez, batzaz beste, 200.000 pezeta (8.000 libera) xahutzen ditu familia batek, urtean. Diru horren %60 (120.000 pezeta inguru) autoa erabiltzean gastatzen da, eta gainerakoa etxeko zereginetan. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian 700.000 autotik gora zenbatu daitezke egun, eta horiek urtean 950 milioi litro olio erretzen dute (95.000 milioi pezeta-3.800 milioi libera, dirutan). Badira, ordea, autoa erabiltzeagatik energia eta diru gutxiago gastatzeko gogoan izan beharreko zenbait txikikeria.

- Astiro gidatuz gero, %50-60 inguru aurreztu

daiteke oliotan, eta gainera, ingurumena ere dezente gutxiago kutsatzen da.

- Autoa martxan jartzean, eta berehala abiadura gehitu edo gutxitzean gastatzen da energia gehien, %36tik %79 artean.
- Autoa martxan jarri eta aurreneko hiru kilometroetan erretzen da olio gehien; horregatik, lehen kilometro horietan besteetan baino mantsuago gidatzea komeni da.
- Orduko 100 kilometroko abiaduratik gora goazenean haizeari aurre egiten gastatuko du autoak energia gehien.
- Leihoak itxita gidatzean, %5 inguru aurrezten da kontsumoan.
- Autoaren mantentzea egoki eginez gero, %10 aurreztuko dugu energia kontsumoan.

• **TERMOSTATOAK.** Horretarako, etxean tenperatura egonkor bat mantentzeko, berogailuetan termostatoak jartzea aholkatzen dute adituek (4.000-5.000 pezeta artean balio dute, 160-200 libera inguru). Etxean termostato bakarra jartzekotan, gelarik hotzenean jartzea gomendatzen dute, nahiz egokiena gela bakoitzean termostato bat jartzea dela gogorarazi. Termostatoek, beraz, beharren arabera tenperatura egokia bermatzen dute.

• **DEKORAZIOA ETA LANDARETZAK.** Gutako askok dekorazio zurruna gustuko izan ez arren, horixe da etxe bat ondo bakartzeko modu egokienetako bat. Errezelak eta saretak egokiak dira neguan etxea bero eta udan hotz mantentzeko. Jende askok eguzkiak jotzen duen orduetan pertsianak ixteko joera du errezelak ez hondatzeko; hori baina ez da egokia energia aprobetxatzea kome-nigarria da eta. Inguruko landaretzak ere zeresan handia du horretan, eta, beraz, erreparatu beharreko kontua da hori ere. Izan ere, landaretzak gure etxerako egokia den mikroklima bat sortzen lagunduko digu. Horretarako, hosto erorkorrak dituzten landareak jartzea gomendatzen dute lorezaintzan adituek. Era horretan, udan hostoek gerizpea eskainiko digute, eta eguzki izpiei gure etxea berotzea eragotziko diete; neguan, oster, eguzkiak ez du etxea berotzeko trabarik izango.

• **BEHEKO SUA.** Familia bako-rreko etxeen kopuruak gora egin du, eta horrekin, baita beheko sua erabiltzearen ohi-turak ere. Beheko suari eteki-na ateratzeko eta beroa mantentzeko, baina, tximinia horiek itxi eta berogailu bihurtzea aholkatzen dute zenbait ingeniari. Kontuan izan behar da beheko su baten sortutako beroaren %10 baino ez dela aprobetxatzen, eta itxitako beheko su baten, berriz, beroaren %90 inguru.



ESKATU KALITATEKO MARKA
WENT

ATEAK ETA LEHIOAK



- **POLIURETANO** trinkoa, **WENT**
- Sendoa, deformaiezina
- Korrosiorik gabeko produktua
- Guztiz egonkorra -40°tik +120° arte
- Airearentzako iragazkortasuna, A-3 (areagotua)
- Urarentzako estankotasuna E-4 (aparta)
- Haizearen kontrako erresistentzia V-4 (aparta)
- Beroaren transmisioa, K koefizientea= 1,6 arte
- Kolore guztiak eta guztiz egonkorak
- Ez du hautsa erakartzen (karga elektrostatikorik gabe)
- Produktu ekologikoa
- Mantenimendurik gabe
- **BISITZA OSORAKO KONPONBIDEA**



Instalatu: Kalitatea, ekonomia eta prestijioa **WENT** leihoekin!



WENT Thermik, S.A.

Urniatako errepidea, z/g

Tel.: 943 59 42 11 - 59 42 00 - Faxa: 943 30 04 98

E-Mail: went@adegi.es Web: http://biuldnet.es/went-thermik

20140 ANDOAIN-Gipuzkoa-Espainia